

# Arrigorriagako Udal Euskaltegia

2022-2023 ikasturteko memoria

## AURKIBIDEA

	Orrialdea
1.- Sarrera.....	2
2.- Baliabideen kudeaketa .....	2
2.1.- Giza baliabideak .....	2
2.2.- Diru baliabideak .....	5
2.3.- Beste baliabideak .....	6
3.- Aurreikusitako plangintzaren ebaluazioa eta betetze-maila	7
4.- Beste helburu batzuk.....	11
4.1.- Ikasturtearen balorazio orokorra.....	11
4.2.- Hurrengo ikasturterako kontuan hartu beharrekoak...	11
5.- Eraitzen azterketa.....	12
6.- Ondorioak.AMIA.....	23

## **1.- SARRERA**

Dokumentu honen bidez 2022-2023 ikasturtean zehar gertatutako gorabeheren balorazioa egin eta ikasturteko egitasmoan ezarritako helburuak aztertu nahi ditugu. Ikasturte amaieran zentroaren diagnostika lortu eta hurrengo ikasturteko egitasmoa osatzea da helburua, hain zuzen ere.

Halaber, Artezkaritza Batzordean eta HABEn euskaltegiaren funtzionamenduaren berri emateko dokumentua dugu berau.

## **2.- BALIABIDEEN KUDEAKETA**

### **2.1.- GIZA BALIABIDEAK**

#### **GOBERNUKO ORGANOAK**

Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren estatutu berrietan jasotzen diren GOBERNUKO ORGANOAK hauexek dira:

##### 1) Batzordeko burua

Alkate-buruak karguari dagozkion eginkizunak euskara zinegotziaren esku utzi zituen 2019ko ekainaren 26ko ebazpenez eta 2021eko otsailaren 1etik ekainaren 16ra Celia Rubio Jimenez izan da erakunde autonomoaren presidente delegatua. Ikasturte osoan zehar 50 bat erabaki hartzen dira presidente delegatuaren ebazpenen bitartez.


##### 2) Artezkaritza Batzordea

Ikasturtean zehar Artezkaritza Batzordeak 5 bilera egin ditu eta denak lehenengo deialdian izan dira. Lau ohikoak izan dira eta, besteak beste, langileon lanaldiak, eskola egutegia, tasa bereziak kolektiborentzat eta zuzendari akademikoaren eta ikasleen ordezkariaren izendapenak onartu dira. Ezohiko bakarra izan da urteko aurreko ekitaldiko kontu orokorra onartzeko.

Bestalde, 2022ko urrian HABEk Ander Alonso izendatu zuen Artezkaritza batzordekide.

##### 3) Zuzendaritza: hutsik dago

4) Zuzendari akademikoa. Itziar Arteagoitia Alonso izan da 2021eko urriaren 1etik 2023ko irailaren 30era.



## IRAKASLEEN KLAUSTROA


Jarraian agertu bezala egon da osaturik.

- \* Zuzendari akademikoa: Itziar Arteagoitia Alonso
- \* Irakasleak: Miren Josune Zamalloa San Miguel  
Alaitz Aldabaldetrekue  
Mirian Alonso

Irakasle batzordeak 9 bilera egin ditu ikasturte honetan eta, besteak beste, hurrengo gaiak eztabaidatu dira:

- Ikasturteko eskola-orduen banaketa eta ikasturtearen antolamendua.
- Ebaluazio diagnostikorako oharrak eta oro har ebaluazioaren gaineko irizpideak adostu ditugu.
- Tarteko ebaluaziorako oharrak (HABEren ebazpenak jasotzen dituen azterketen ezaugarriak gogorarazi, azterketa datetarako xehetasunak, tutoretzak eta abar).
- Euskaltegiko Curriculum Proiektua (ECP)
- Kanpo ekintzak
- Tarteko ebaluazioaren eta azken ebaluazioaren ondorengo balorazioa
- Taldeen azken ebaluazioa
- Ikasturteko helburuen ebaluazioa

## ORGANIGRAMA

**LANGILEEN KUDEAKETA**

2022-2023 ikasturtearen 2 irakasle kontratatu ibili dira. Lehena, irakasle finko baten gaixotasun baja betetzeko eta bigarrena, 2021eko urritik libre dagoen lanpostua betetzeko.

Beraz, urritik ekainera 5 langile ibili dira euskaltegian; administraria, zuzendari akademikoa eta 3 irakasle.

Langileen prestakuntzari dagokionez, 2022-2023 ikasturtean bi irakasle aztertzaileak direnez, bateratze-saioak egin dituzte. Bestalde, bi irakaslek ikastaro bat egin dute uztailean "Gutxiago zuzendu eta laguntza handiagoa eman ikaskuntza: feedbackaren indarra" izenekoak.

**2.2.- DIRU BALIABIDEAK**

Aurreko ikasturteetan bezala pertsonal gastuak eta diru iturriak aztertu ditugu.

**GASTUAK.- Pertsonal gastuak**

Urtea	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko kredituak	Agindutako ordainketak	Betearazpen maila
2019	321.264,65	0	321.264,65	259.275,25	%80,71
2020	350.864,65	0	350.864,65	344.319,38	%98,13
2021	385.489,30	0	385.489,30	379.650,26	%98,48
2022	384.770,00	0	384.770,00	383.448,29	%99,66
Aldea				+3.798,03 (% 10,00)	

Ikusten dugunez, pertsonal-gastuen gorakada %10ekoa izan da.

**DIRU-ITURRIAK****1) HABE**

Ikasturtea	Irakasle-orduak		Onartutako pertsonala			Ordaindutako diru-laguntza		Aurreko urtekoarekin aldea %
	aurrez aurre	auto	Zuzendaria	Irakasleak	Adm Lag.	guztira	hainbanatua	
18-19	1.590,00	0	1	1,5	1	131.088,74	131.088,74	%-17,91
19-20	1.620,00	0	1	1,5	1	134.666,52	134.666,52	%+2,73
20-21	2.565,00	245,00	1	3,5	1	206.229,30	206.229,30	%+53,14
21-22	2.355,00	110,60	1	3	1	190.399,25	190.399,25	%-7,67
22-23	2.470,00	127,90	1	3	1	203.763,68	203.763,68	%+7,02

Aurreko ikasturtearekin alderatuta, HABEk diru-laguntza %7,02 igo du, zuzendaria, 3 irakasle eta administrari laguntzailea finantzatzeko beste izan da. Azken ikasturteetan ez da hainbanaketarik egon, HABEren aurrekontuetako kredituak Udal Euskaltegi guztien gastu osoa finantzatu baitu. Urtero aipatzen dugun bezala, pertsonalaren gastu errealetik oso urrun dago HABEtik datorren diru-laguntza, hau da, Udalhitzek jasotzen dituen gure mailetatik.

**2) Ikasleen matrikulak**

Aurrekontutik ateratako datuak direnez, urteka agertzen dira.

Kontzeptua	Aurrekontu kopurua	Jasotako kopurua	Aldea
2018	45.020,00 €	26.036,81 €	-18.983,19 €
2019	32.020,00 €	25.103,31 €	-6.916,69 €
2020	32.020,00 €	11.094,93 €	-14.008,38 €
2021	15.020,00 €	16.117,10 €	+ 1.097,10 €
2022	15.020,00 €	10.899,80 €	- 4.120,00 €

2022.urtean agertzen den kopurua 2022-2023 ikasturteari dagozkion matrikulak dira. Ikasle kopurua aurreko ikasturtekoaren berdina izan bada ere, matrikula kontzeptuan jasotako kopuruan askoz txikiagoa izan da, ordaindu beharreko tasa mota ezberdinengatik; hau da, ikasle langabetu gehiago egoteagatik; hortaz, tasa zero gehiago, eta gainera, ikasturte honetarako osatutako talde batzuk eskola-ordu gutxiagokoak izan baitira. Bestalde, aipatzekoa da, aurrekontuan jarritako kopurua aurreko urtekoa izan dela, aurreko ikasturteko diru-bilketa kontuan hartu baita.

### 3) Udala

Arrigorriagako Udalaren ekarpenak honako hauek izan dira:

<b>Udala</b>	<b>2018</b>	<b>2019</b>	<b>2020</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>
Arrigorriaga	160.533,13	193.105,91	189.528,13	191.040,00	191.040,00

Arrigorriagako Udalak 2022an 2021ean besteko ekarpena egin du, eta hainbat gastu tesoreria gerakinarekin finantzatu dira.

#### 2.3.- BESTE BALIABIDEAK

Ikasturte honetan ez da inbertsio berririk egin.

### 3.- AURREIKUSITAKO PLANGINTZAREN EBALUAZIOA ETA BETETZE MAILA

1.- Euskaltegiaren eskaintzan aldaketarik egitea komeni den berraztertzea		
BETETZE-MAILA	DATUAK ETA ARRAZIOIAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
ONA	-- <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bildu eta aztertu dugu beste euskaltegi batzuetako eskaintza</li> <li>- Klaustroan eztabaidatu dugu eta presidente delegatuarekin batera hartu ditugu erabakiak. Mintzamina lantzeko 60 orduko ikastaroa eskaintzea erabaki dugu arratsaldeetan. Aurretik gure ikasleei galdetu diegu ea izena emango luketen horrelako ikastaro batean</li> <li>- Hurrengo ikasturterako eskaintza prestatu dugu erabakiak kontuan hartuta</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtzionatzen ari dena sustatzen jarraitu: jubilatutako taldeak eta Madalen elkarterako emakumeak. Saiatu guraso-taldeak berreskuratzen.</li> </ul>

2.- Programazioaren prestaketan eta oro har didaktikan trebatzen jarraitzea.		
BETETZE-MAILA	DATUAK ETA ARRAZIOIAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
NAHIKOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Beste ikasturte batzuetako programazioei jarraitu diegu A1 eta A2 mailetan eta osatu eta txukundu ditugu</li> <li>- B1 mailako programazioa osatu dugu, baina ez dugu BANABIL metodoa erabili</li> <li>- Jubilatutako emakumeen taldeetara egokitu ditugu programazioak eta txukun gorde</li> <li>- Bilerak egin ditugu irizpideak hartu eta zalantzak argitzeko</li> <li>- HABEk antolatutako ikastaro bat egin dugu bi irakasleek.</li> <li>- Egindako ikastaroetatik ateratako zenbait ondorio</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- B2 eta C1 mailako programazioa osatu, eta euskaltegiaren bide-orria izango dena osatu</li> <li>- Irakasleok etengabeko elkarlanean jarraitzea didaktika mailako hausnarketa bultzatuz.</li> </ul>



	eta ideia partekatu ditugu irakasle guztiakin eta hausnarketa egiten hasi gara, metodologian egokitzapenak egiteko.	
--	---	--

### 3.- Autoikaskuntzako ikasleentzako material osagarria prestatzea eta eskura jartzea

BETETZE-MAILA	DATUAK ETA ARRAZOIAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
ONA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Maila guztietarako hainbat entzumen eta irakurmen testu eta dagozkien ariketak aukeratu ditugu</li> <li>- B1, B2 eta C1 mailetako azterketa eredu batzuk aukeratu ditugu</li> <li>- Aukeratutako testu, ariketa eta zuzenketa orriak ikasten plataformara igo ditugu, ikasleek eskura izan ditzaten.</li> </ul>	C1 mailarako batez ere, egokitutako programazioa osatu, BOGA astuna egiten baitzaie ikasleei

### 4.- Kanpo ekintzen programazio finkoa osatzea

BETETZE-MAILA	DATUAK ETA ARRAZOIAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
EZ NAHIKOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lehen hiruhilean beste taldekoekin batera jolastu ginen</li> <li>- Bigarren hiruhilean, txangorik ez egitea erabaki dugu, eta diru hori ipuin kontalari bat ekartzera bideratu dugu.</li> <li>- Lehiaketa bat ere antolatu dugu: Arrigorriagari buruzko galdetegia</li> <li>- Maiatzean Bilbora joan gara bisita gidatu batera,</li> <li>- Nahiz eta ekainean beste taldekoekin batera berriro jolasean ibiltzeko asmoa izan, ez dugu egin</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mailaren araberako edota ordutegi bereko taldeen programazio finkoa egin</li> <li>- Herriko euskal kulturako eragileak gonbidatu euskaltegira zerbaiten berri ematera (dantza taldekoak...)</li> <li>- Kultur etxekoekin eta Euskara Zerbitzuko teknikariarekin hitz egin, antolatzen dituzten zenbait jardueratan gure ikasleek ere parte har dezaten.</li> </ul>

5.- Euskaraldia egitasmoa eta oro har euskararen erabilera sustatzea ikasleen artean.		
BETETZE-MAILA	DATUAK ETA ARRAZOIAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
EZ NAHIKOA?	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleei Euskaraldiaren berri eman diegu, gaia landu dugu eta izena ematera animatu ditugu.</li> <li>- Ikasle gehienek eman dute izena ahobizi edo belarriprest rolean.</li> <li>- Herrian euskaraz antolatutako eskaintzaren berri eman diegu ikasleei, parte hartzera animatu ditugu eta ahal izan dugun guztietan talde moduan joan gara (antzerkia, Irati filma)</li> <li>- Euskarazko komunikabide eta euskara ikasteko aplikazio eta joko ezberdinen berri eman diegu eta erabiltzera animatu ditugu</li> <li>- Iaz bezala, Egunean behin lehiaketan parte hartzera bultzatu ditugu</li> <li>- 35-40 liburu mailegatu dituzte ikasleek 2022-2023 ikasturtean</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hasierako mailtako ikasleekin benetako egoera komunikatiboak landu herriko ariguneetan: erosketak nola egin, tabernan zelan eskatu, kiroldegi edo kultur etxeko ikastaroetan izena eman...</li> </ul>

## 4.- BESTE HELBURU BATZUK

### 4.1.- IKASTURTEAREN BALORAZIO OROKORRA

Udal Euskaltegiko irakasleek ikasturtearen amaieran egiten dugun balorazioan izandako zailtasunak, indar-guneak eta hobetzeko proposamenak aztertzen ditugu, hurrengo ikasturtean kontuan izate aldera.

Hona hemen azpimarratutakoak:

- **Asistentzia eta bajak:** asistentzia %76 izan da, azken urteotako eskasena. Bajei dagokienez, ostera, azken bost ikasturteotako daturik onenak izan ditugu, alegia, askoz baja gutxiago izan ditugu.
- **Berbalagun:** 2022-2023 ikasturtean, urrian, 2 berbalagun talde osatu ziren, bata goizean eta bestea arratsaldean. Guztira 16 berbalagun izan dira, eta gehienak urtetan berbalagun aritzen direnak. Dena den, bina baja izan dira taldeetan; beraz, 12 lagunek amaitu dute maiatzean, eta jarraitzeko prest agertu dira.  
2023-2024 ikasturtean ere izen-ematea aurreratu dugu, euskaltegiko taldeekin batera antolatu eta hasi ahal izateko urrian.
- **Asebetetze inkesta:** ikasturte honetan ez diegu ikasleei pasatu inkestarik ikasturtearen eta oro har euskaltegiaren balorazioa egiteko bi urterik behin egitea erabaki dugulako.
- **ECP (Euskaltegiko Curriculum proiektua):** orain dela bost urteko Curriculum Proiektua eguneratu dugu ikasturte honetan, eta horrek zenbait hausnarketa egitera eta zenbait erabaki hartzera eraman gaitu. Besteak beste, portfolioan aldaketa batzuk egitea eta feedbackaren inguruko gogoetari ekitea.

**4.2.- HURRENGO IKASTURTERAKO KONTUAN HARTU BEHARREKOAK****PROPOSAMENAK**

1. B2 eta C1 mailetako programazioa osatu, eta euskaltegiaren bide-orria izango dena osatu.
2. Irakasleok etengabeko elkarlanean jarraitu didaktika mailako hausnarketa bultzatuz.
3. Portfolioan egindako aldaketak ebaluatu, eta feedbackaren inguruan hasitako gogoetarekin jarraitu eta irizpideak bateratu.
4. Euskara ikasgelatik kanpora atera eta erabilera sustatze aldera, kanpo ekintzak programatzeko orduan Kultur Etxekoekin eta Euskara Zerbitzukoarekin hitz egin, eta lankidetzan aritzea proposatu, antolatzen dituzten zenbait jardueratan gure ikasleek parte har dezaten.

## **5.- EMAITZEN AZTERKETA**

Azken urteotan bezalaxe, HABEren Batzorde Akademikoak onartutako Oinarrizko Adierazleen sistema jaso badugu ere, zenbait moldaketa egin ditugu. Auto-ebaluazio tresna honen bidez, gure euskaltegiaren zerbitzu-kalitatea hobetzea dugu helburu. Horrela, joera zein den antzematearren, Arrigorriagako Udal Euskaltegiari dagozkion azken bost urteotako datuak eskaini ditugu posible izan den kasu guztietan.

Hauexek dira aztertutako adierazleak:

- 1.- Ikasleak
- 2.- Talde-ratioa
- 3.- Ikasleen banaketa mailetan
- 4.- Ikasleen matrikula-orduen batez bestekoa
- 5.- Ikasleak irakasleko
- 6.- Ikas sistemaren tipologia
- 7.- Birmatrikula
- 8.- Asistentzia
- 9.- Lorpenak
- 10.- Egiaptapenetako emaitzak

## 1.- Ikasleak

### Definizioa



Aztergai ikasturteetan euskaltegian aritutako ikasle-kopuruak eta handitze edo txikitze ehunekoak.

### Adierazlea

Jardueraren handiagotze /txikiagotzea islatu nahi du

### Azalpena

Bi ikasturtez jarraian ikasle gehiago lortu ondoren, 2022-2023 ikasturtean galera txikia izan dugu. Dena den, hirugarren ikasturtez jarraian jubilatutako taldeak osatu ditugu, eta gainera kopurua bikoiztu dugu. Ikasle guztien %31,6 izan dira jubilatutakoak. Ondorioz, beste taldeetan matrikulatutako ikasleen portzentajea txikiagoa da aurreko ikasturtearekin alderatuz.



## 2.- Talde-ratioa

### Definizioa


Batez beste, taldeetan egon den ikasle-kopurua.

### Adierazlea

Eragiketa: eskainitako ikasle-orduen batura zati taldean emandako orduak

### Azalpena

Hirugarren ikasturtez, HABEK 7 ikasleko taldeak sortzeko baimena eman digun arren, 2022-2023 ikasturtean ozta-ozta osatu ditugu taldeak. Oraingoan ere, talde handienak jubilatuenak izan dira, batzaz beste 12 ikasle izan baititugu. Gainerako taldeetan, ostera, batzaz beste 7,25.



### 3.- Ikasleen banaketa mailetan

#### Definizioa

Ikasturte jakin batean maila bakoitzeko matrikula-kopurua, ehunekotan emana.

#### Adierazlea


Eragiketa: maila bakoitzean egindako matrikulak bider ehun zati euskaltegian matrikulatuak.

#### Azalpena

Aipagarria da A1 mailan ia ikasleen erdiak matrikulatu direla. Izan ere, jubilatutako talde guztiak A1 mailakoak izan dira.

Bestalde, C1 mailako 4 talde osatu ditugunez, aurreko ikasturtean baino bat gehiago, ulergarria ikasle asko izatea maila horretan. B2 mailako talderik, aldiz, ez dugu osatzerik izan.

Hauxe da azken ikasturteetan ikusten duguna: A1 mailan ikasle asko jubilatuei esker eta C1 mailan ere ikasle asko D eremuan ikasi duten ikasle gazteei esker. Gainontzeko taldeetan ikasle gutxi batzuk baino ez.





#### 4.- Ikasleen matrikula-orduen batez bestekoa

##### Definizioa


Batez beste, zer iraupen-maila duten euskaltegian emandako ikastaroek.

##### Adierazlea

“Talde-orduak zati talde-kopurua” eragiketak emango digu kopurua

##### Azalpena

2022-2023 ikasturtean 4 jubilatutako talde osatu ditugu, eta laurak 60 orduko ikastaroak izan dira. Horrek eragin du hirugarren ikasturtez ikasleen orduen batez bestekoak behera egitea, ikasleak galdu ez arren.



## 5.- Ikasleak irakasleko

### Definizioa


Irakasle bakoitzaren ardurapean zenbat ikasle dauden.

### Adierazlea

Eragiketa: zenbat ikasle dituen euskaltegiak zati irakasleak

### Azalpena

Jubilatuentzat ordu gutxiagoko ikastaroak antolatzeak ekarri du irakasleen ardurapean izan diren ikasle kopuruak gora egitea.



## 6.- Ikas sistemaren tipologia

### Definizioa

Auto-ikaskuntza bidez ikasten ari direnen ehunekoa. Portzentaje horretatik ehunera bitartean ari direnak aurrez aurreko ikasketa sisteman ari direnak dira


### Adierazlea

Eragiketa: auto-ikaskuntzan egin diren matrikulak bider ehun zati egin diren matrikula guztiak

### Azalpena

Garai batean ez bezala, gaur egun ez dira asko gurean auto-ikaskuntzan izena ematen duten ikasleak. Izan ere, perfil zehatza behar du ikasleak, saiatua, langilea eta borondate handikoa izan behar.

Dena den, oso ordutegi mugatua dutenentzat irtenbidea izan da autoikaskuntza ikasturte askoan. Orain, ordea, ez da gure lehentasuna eta 2022-2023 ikasturtean ez dugu autoikaskuntza ikaslerik hartzerik izan, aurrez aurreko taldeak lehenetsi baititugu.



## 7.- Birmatrikula

### Definizioa


Aurreko ikasturtean aritu eta hurrengoan berriro ere matrikulatutako ikasle-kopurua

### Adierazlea

Ehunekotan emana, ikasturte bateko datuak aurrekoarekin alderatuz. "Euskaltegian berriro matrikulatzen den ikasle-kopurua zati euskaltegian matrikulatua bider ehun" eragiketak emango digu horren berri.

### Azalpena

2022-2023 ikasturtean birmatrikula kopuruak gora egin du 20 puntu, batez ere, jubilatuei esker, bi taldeetako ia ikasle guztiek jarraitu baitute. Hori gurean ez da erraza izaten, euskaltegia txikia izanik, ikasturte batetik bestera ikasleak sakabanatu egiten zaizkigulako, eta C1 mailan ikasle asko aritzen direlako. Gainera, aipatu beharra dago ikasle asko ez daudela ikasturte bat baino gehiago eskaintzeko prest.



## 8. Asistentzia

### Definizioa

Aurrez aurreko saioetan ikasleriak izan duen presentzia.


### Adierazlea

Ehunekotan eskainia. "Ikasleak jasotako eskola-orduak zati emandakoak bider ehun" eragiketak emango ditu horren berri.

### Azalpena

Gure kezka nagusienetakoa da asistentzia azken ikasturteotan eta hobetu beharrean, okerrera egin du.

Egia esan, sarritan esan dugun moduan, ez gara ikasleen asistentzia hobetzeko kapaz, eta ez dakigu zer egin. Argi dago ikasturtea luzea dela, eta sarritan, ikasleen bizitza aldatu egiten dela, baina ez dugu zalantzarik euskaltegia ez dela inoiz euren lehentasunetan sartzen.



## 9.- Lorpenak

### Definizioa



Azpi-mailaren bat gainditutako ikasle kopurua mailaka, ehunekoetan emanda.

### Adierazlea

Ikas prozesuan zehar ikasleriari aitortutako azpi-maila(k) kontuan hartuta ikasleen ehunekoek emango digute horren berri.

### Azalpena

Oraingoan ere pixka bat behera egin du azpi-mailarik gainditu ez duten ikasleen kopuruak, eta erdia izan da. Daturik kaxkarrena A1 mailan izan dugu, eta zalantza barik adieraz dezakegu bajek eta jubilatutako talde bereziek eragin dutela emaitza hori.



## 10.-Egiaztapenetako emaitzak

### Definizioa

Egiaztapenetara matrikulatuetatik zenbatek gainditu duten egiaztapena.


### Adierazlea

Ehuneko bat da: Egiaztapena gainditutako ikasle kopurua bider ehun, zati egiaztapenetara aurkeztuak.


### Azalpena

Harrigarria bezain pozgarria izan da 2021-2022 ikasturtean C1 mailan izandako gainditu kopurua, ohi baino askoz hobea izan baita. B1 mailan, aldiz, ohi baino ikasle gutxiagok egiaztatu dute.

A1 eta A2 mailetan oro har emaitza onak izaten dituzte ikasleek, eta 2022-2023 ikasturtean ere horrela izan da.



OHARRA: 1. deialdietako datuak baino ez daude.



**6.- ONDORIOAK. AMIA**

	<b>AUKERAK</b>	<b>MEHATXUAK</b>
<b>INGURUNEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oraindik bezero potentzial asko: biztanleriaren %36,66k ez daki euskara, eta euskararen erabilera eskasa da</li> <li>• Finantzaketan, talde txikiagoak egiteko aukera, eta diru-laguntzak.</li> <li>• Arduradunen jarrera, enpatia.</li> </ul> <p>* Euskara zerbitzuaren Berbalagun egitasmoa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sektoreak ez du ikusgarritasunik, ezta osperik ere.</li> <li>• Euskara ez dago herritarren lehentasunen artean.</li> <li>• Euskararen erabilera eta balio eskasa gizartean.</li> <li>• Gazteek gehienbat D ereduan ikasten dute.</li> <li>• Ezagutza/erabilera/egiaztapena. Horien uztarketa zaila.</li> </ul>
	<b>INDARGUNEAK</b>	<b>AHULEZIAK</b>
<b>EUSKALTEGIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Langile gaituak, esperientziadunak, profesionalak eta inplikazio maila altua.</li> <li>• Udal euskaltegien sarean parte hartzea.</li> <li>• Tasen igoerarik ez, eta langabetuek ezer ez ordaintzea</li> <li>• Prezio eta modulu berezia zenbait kolektiborentzat.</li> <li>• Birmatrikula kopurua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oro har arratsaldean ikasle gutxi eta bereziki ordutegiko bigarren txandan</li> <li>• Ikasleen baja kopurua</li> <li>• Ikasle gehiago irakasleen ardurapean</li> </ul>